

MACFARLANE, B. (2018)

*La libertad académica del estudiante en contextos de educación superior.* Madril: Narcea

Liburu honen jatorria egileak bizi izandako esperientzia sasi gozoarekin erlazionatzen da. Azken urteotan ikaslearen ikaskuntza prozesua hobetzeko saiakera handiak egin diren arren, egileak dio garrantzi handikoa den zerbait ahaztu egin dela: ikasleen eskubideak eta beren ikasteko askatasuna. Egileak dioenez, pertsona heldu eta autonomo gisa parte hartzeko eta garatzeko dituzten eskubideak kasu batzuetan ez dira errespetatuak izaten: klaseetara derrigorrezko bertaratze kontrolak, klasean egindako ekarpenen ebaluazioak, taldekako lan proiektuek eta hausnarketa-jarduerak ez dituzte ikasleen artean ager daitezkeen ezberdintasunak kontuan hartzen. Alde horretatik, era informalean ikasi nahi duten ikasleekiko, edota lotsatiak diren eta beren pribazitatea baloratzen duten ikasleekiko tolerantzia ezaz hitz egiten du.

Oro har ikaslearen askatasun akademikoa aktibismo sozialarekin eta politikoarekin erlazionatu ohi da: ohituta gaude ikasleek, bidegabekeriatzat jotzen dituzten horien aurrean, beren mobilizazioak antolatzean, bai unibertsitatean, baita unibertsitatekanpo ere. Historikoki ikaslearen askatasun akademikoa hirurogeigarren hamarkadarekin erlazionatu ohi da, gora behera sozialez beteriko garaia, hain zuzen ere. Unibertsitateak kontzientzia kritikorako lekua bihurtu behar du eta, alde horretatik, ezinbestekoa da askatasun akademiko horretan ikaslea trebatzea.

Egileak, egungo unibertsitate planteamenduarekiko ikuspegi kritiko honetatik, ikaslearengan zentratutako ikaskuntza erreal bat aldarrikatzen du, honek bakarrik ahalbidetuko baitu pertsona gisa garatzea. Ikasleak noiz ikasi, nola ikasi eta zer ikasi aukeratzeko beharra azpimarratzen da. Egungo planteamenduan, ordea, irakaskuntza eta ebaluazioa eraginkortasuna lortzeari bideratuta dago, eta ez hainbeste ikaslearen ikaskuntza bideratzeko askatasuna ahalbidetzen duen pedagogia bati. Politika instituzionalek, kasu batzuetan, ikasleen eskubideak urratzetik gertu ager daitezke, eta hori sakon aztertu beharreko fenomeno da.

Zortzi kapitulutan banatutako liburu honek orain arte aipatutako ildoak sakon aztertzeko aukera eskaintzen du. Nazioarteko irakurleei bideratutako liburu baten aurrean gaude, soziologiari, filosofiari edota goi mailako hezkuntzari buruzko bibliografia historiko zabala eskaintzen duena. Alde horretatik, kuestionagarriak izan daitezkeen hainbat alderdi aipatzen baditu ere, interes handikoa izan daiteke hezkuntza politiken eta goi mailako hezkuntzaren ezagutzan sakondu nahi duten irakasleentzat edo ikerlariarentzat.

*Igor Camino Ortiz de Barrón*